

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Balmasedako Udala

Ayuntamiento de Balmaseda

2019





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Langileria	10
III.3 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	11
III.4 Kontratazioa	11
III.5 Beste batzuk.....	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	19
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Langileen gastuak.....	22
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	24
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez arrunta.....	25
A.9 Zorpetzea	27
A.10 Zordunak	27
A.11 Hartzekodunak	28
A.12 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	29
A.13 Kontratazioa	29
ALEGAZIOAK.....	31



ABREVIATURAS	33
I. INTRODUCCIÓN.....	35
II. OPINIÓN	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	37
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	38
III.1 Presupuesto y contabilidad	38
III.2 Personal.....	38
III.3 Transferencias y subvenciones concedidas	39
III.4 Contratación	39
III.5 Otros	40
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	41
V. CUENTAS ANUALES	44
ANEXOS.....	47
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	47
A.2 Presupuesto y contabilidad	47
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	48
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	49
A.5 Gastos de personal	50
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	51
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	52
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	53
A.9 Endeudamiento	55
A.10 Deudores.....	55
A.11 Acreedores	56
A.12 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	56
A.13 Contratación	57
ALEGACIONES	59



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB	Europar Batasuna.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FA	Foru Araua.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki Entitateak.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Balmasedako Udalaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Balmasedako Udalak 7.697 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta udalaz gaindiko honako entitate hauetan parte hartzen du:

- Enkarterriko Mankomunitatea (HHSen bilketa eta garraioa, gizarte zerbitzuak, berdintasuna, adikzioak, euskara, informazioa eta kontsumoa eta izurriteen kontrola).
- Enkarterriko Udal Euskaltegia Mankomunitatea (euskalduntzea eta alfabetatzea).
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa).
- Haurreskolak Partzuergoa (haurtzaindegien kudeaketa).



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. 644.841 euroan esleitutako obra batean (1. espedientea A.13n) ez ziren gauzatu eskainitako hobekuntza batzuk eta gainera, proiektuari aldaketak egin zitzaizkion, kontratazio-organoak onartu gabe eta ondorioz, ziurtatutako obra kontratua gauzatzeko aurrekontua baino % 12,5 handiagoa izan da.
2. 2019ko ekitaldian Udalak kontratu-estaldurarik gabe gauzatu zituen etxez etxeko laguntza-zerbitzuari zegozkion gastuak, 85.763 eurorenak, izan ere kontratuaren indarraldia 2018ko urtarrilean amaitu zen. Gastu horiek zerbitzuaren kudeaketa Enkarterriko Mankomunitateari eskualdatu aurreko aldiari dagozkio (ikus A.6).

TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

3. León Trucios Iraskundeak txostena aurkeztu zuen 2018ko urtean egoitzaren ustiaketak sortutako defizita finantzatzeko Udalarengandik jasotako dirulaguntza justifikatzeko; ordea, ez da txosten horren gaineko iritzirik eman, besteak beste, auditoreek ez dutelako hainbat agiri eskuratzerik izan. Hori dela eta, ez dago zehazterik dirulaguntza behar bezala justikatua dagoenik. Emandako 400.000 euroren dirulaguntzatik 2019ko abenduaren 31n 260.000 euro ordaindu dira (ikus A.7).

Epaitegi honen ustetan, Balmasedako Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2019ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	OND. GARBIA
A.3 OHZ erag. sarrerak, sobera kontabilizatuak	(45)	(45)	-	(45)
A.5 Enplegu emailearen konturako Giz. Seg. kuota kontabilizatu gabe.....	(53)	-	53	(53)
A.10 Aplikatzeko dauden ordainketen saldoak, zuzendu beharrekoak.....	(499)	(289)	-	(289)
A.11 BEZagatik Ogasun Publiko hartzekodunaren saldoaren zuzenketa	81	22	(59)	81
GUZTIRA	(516)	(312)	(6)	(306)

2. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2019ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek jasotzen duten ondasunen eta eskubideen egiazko egoera, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Balmasedako Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2018ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarria zaion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- Izan ere, aurrekontuak ez zuen behar hainbateko informazioa jasotzen sarrera eta gastuen ondoriozko saldoa kalkulaturiko finantzaketaren gaitasun edo beharrarekin lotzeko, Kontuen Europako Sistemaren arauetara jarraituz.
- Alkatetza-dekretu bitartez onartzen diren kredituak aldatzeko zazpi espediente Osoko bilkurak onartu behar zituzkeen, askotariko programa funtzionalen arteko transferentziak direlako eta bariazio metatuek hasierako diru-izendapenen % 25 gainditzen dutelako.
- Ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzeko ez dira aintzat hartu 205.835 euroren desbideratze negatiboak, eta horiek doitutako aurreko emaitza adierazitako kopuruan gehitzea eragin dute. Zuzenketa horrek ez du eraginik Gastu orokorretarako diruzaintza geldikinean.
- Kobratzeko dauden aurrekontuko saldo nagusiak banaka aztertu eta gero ondorioztatu da horietako batzuk, 993.397 euro guztira, baliogabetu egin beharko lirakeela, ez baitagozkie zor eskagarriei (ikus A.10).
- 2019ko ekitaldia ixtean, Udalak dirulaguntza bati (ikus A.7) eta HAPOa idazteko kontratuari (ikus A.13) dagozkien Urteko Kontuetan agertzen ez diren etorkizuneko gastu-konpromisoak ditu, hurrenez hurren 140.000 eurorenak eta 214.385 eurorenak.
- Jasotako fidantzen eta gordailuen kontuak (ikus A.11) antzinako saldoak ditu, eta horien eskagarritasuna aztertu beharko litzateke.

III.2 LANGILERIA

- 2019ko ekitaldia ixtean, 18 langilek aldi baterako lan-kontratuak zituzten plantillaren egiturazko beharrak betetzeko, eta batez beste 16 urteko antzintasuna zuten.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Udalak ez du dirulaguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituena.
- Orokorrean ez da egiaztatzen dirulaguntzen onuradunak egunean daudenik zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan.
- Ez dago erasota aztertutako dirulaguntza-espeditenteatarik batean ere kontu-hartzailetzaren alde aurreko fiskalizaziorik egin denik.
- Kirol-erakunde bati eta kultura-elkarte bati emandako bi dirulaguntza izendunetan (47.000 euro eta 10.000 euro, hurrenez hurren) ordainketa egiaztatzen duten agiriak daude, baina ez fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga-balioa duten dokumentuak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak. bi kasu horietarik lehenengoan, adierazitako akatsa diruz lagundutako gastuen zati bati soilik dagokio, 11.128 euroena.

III.4 KONTRATAZIOA

Kontratazio-espeditenteak (ikus A.13)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zazpi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu:

- 2 milioi euroan esleitutako bi kontratutan (2 eta 3 espeditenteak), eskaintzak baloratzean puntuak eman zitzaizkien enpresa lizitatzailleen kudeaketa-praktika orokorrei, hainbat arlotan (kalitatea, berdintasuna, ingurumena eta euskara), eta ez zen irizpide onargarria eskaintzak baloratzeko, kontratuaren xedearekin zuzenean lotuta ez zegoelako.
- 4. eta 6. espeditenteetan, 660.868 euroan esleitutakoetan, ez da justifikatu horien xedea lotetan ez banatu izana.
- Guztira 909.226 euroan esleitutako hiru kontratutan (1, 5 eta 6 zk. espeditenteak) alkatea da kontratazio-atala eta aldi berean kontratazio mahaiko burua; horrek ez du egitekoen ezinbesteko bereizketa errespetatzen. Guztira 3,1 milioi euroan esleitutako aipatutako bi kontratutan eta beste hirutan (1, 2, 4, 5 eta 7 espeditenteak), kontratazio-mahaiaren hainbat egintzatan mahaia ez zegoen behar bezala eratuta, nahitaez bertan egon behar duten kideetako bat ere ez zegoelako.
- 3 garaje-partzela besterentzea (7. espeditentea), 35.326 euroko prezioan, enkante bidez egiten da; ordea, araudi autonomikoa aplikatuz, lehiaketa bat izapidetu behar da, Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak baitira.
- 660.868 euroan esleitutako zerbitzu kontratu baten esleipen-ebazpenak (4. espeditentea) ez du ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen.
- 1,5 milioi euroan esleitutako kontratu batean (2. espeditentea), enpresa esleipendunak ez ditu idatziz betetzen datu pertsonalak tratatu ahal izateko beharrezko konpromisoak, jarduerari ekin aurretik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Kontratu baten luzapena (1. espedientea), 644.841 euroan esleitua, epez kanpo onartu da, obra egiteko epea (4 hilabetekoa) amaitu eta lau hilabetera.

Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastuak eta beste alderdi batzuk

- Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzatutako kontratazioak aztertzean ikusi dugu zenbait prestazio prozedura ireki erraztu laburtu bidez izapidetu behar ziratekeela, honako xehakapenaren arabera:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Zenbat.
Telefoniako zerbitzuak.....	37
Klaret Antzokiaren kudeaketa eta programazioa	24
GUZTIRA	61

III.5 BESTE BATZUK

Gardentasuna

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuak eta emandako dirulaguntza eta laguntzei buruzko datu gaurkotuak.

Lurraren Ondare Publikoa

- Udalak ez du Lurraren Ondare Publikoa osatzen duten ondasunen eta baliabideen zerrendarik.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	3.652	2.769	2.269	472	360	295
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	5.291	6.538	6.528	684	851	848
Ondare sarrerak (5. kap.).....	553	325	291	71	42	38
A. Sarrera arruntak	9.496	9.632	9.088	1.227	1.253	1.181
Langile-gastuak (1. kap.).....	2.725	2.938	3.060	352	382	398
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	3.635	3.753	3.327	470	489	432
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.394	1.131	1.228	180	147	160
B. Funtzionamendu-gastuak	7.754	7.822	7.615	1.002	1.018	990
Aurrezki gordina (A-B).....	1.742	1.810	1.473	225	235	191
- Finantza gastuak (kap. 3) 3).....	14	11	8	2	1	1
Emaitza arrunta	1.728	1.799	1.465	223	234	190
Maileguen amortizazioa (9. kap.) 9).....	319	319	319	41	42	41
Aurrezki garbia	1.409	1.480	1.146	182	192	149
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.) 6).....	-	39	35	-	5	5
Jasotako kapital dirulaguntzak (7. kap.) 7).....	175	360	76	23	47	10
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	624	1.228	1.656	81	160	215
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	1	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(450)	(829)	(1.545)	(58)	(108)	(200)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	1.278	970	(80)	165	126	(10)
Diruzaintza Geldikina.....	2.291	3.039	2.082	296	331	206
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.....	2.020	2.166	1.448	261	217	123
Zorpetzea.....	1.214	895	576	154	115	74

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2018an % 1etik gora igo dira aurreko ekitaldiaren aldean eta 2019an % 6 inguruko beheraldia erregistratu du; honenbestez, aztertutako aldiaren guztira % 4 inguruko bariazioa negatiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera horiek % 24 eta % 18 egin dute behera 2018an eta 2019an, hurrenez hurren, eta aldi guzti horretako beherakada % 38 izan da. 2018an izandako beherakada honako hauek eragin dute: aurreko ekitaldian JEZen 2016ko kuota probintzialari dagozkion ezohiko diru-sarrerak erregistratu izanak (487.208 euro); EIOZek (350.358 euro); eta egitura berriko obra bati dagokion hirigintza-lizentzia emateagatikotako tasak (70.072 euro). 2019an izandako beherakadan eragina izan dute, funtsean, hiri-hondakin solidoak bildu, tratatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatikotako tasei dagozkien diru-sarrerak; sarrera horiek ez ditu Udalak ekitaldi horretan erregistratu (ikus A.3), eta aurreko bi ekitaldietako bakoitzean 530.000 eurotik gorakoak izan ziren.



- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Diru-sarrera horiek 2018an % 23tik gorako igoera izan dute, aztertutako aldiak guztira izan duen igoerarekin bat etorriz, 2019an ez baita ia batere aldaketarik izan. 2018ko hazkunderari dagokionez, eragin berezia izan dute Udalkutxaren eta Gizarterkutxaren diru-sarreraren bilakaerak, bai eta EBren 317.775 euroren dirulaguntza bat kontabilizatzek ere (ikus III.1 atala), eta, neurri txikiagoan, Lanbidetik eta EAeko Administrazio Orokorretik jasotako dirulaguntzen igoerak. 2019an, EBtik jasotako dirulaguntzek izandako murrizketa zerga itunduetako partaidetzari dagozkion diru-sarreraren bilakaera positiboarekin konpentsatzen da.

Funtzionamendu-gastuak: % 2 egin dute behera aztertutako aldiaren eta beherakada 2019ko ekitaldian gertatu da, izan ere 2018an gastuak gora egin zuen aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz igoera hori ez iritsi % 1era. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** 2018 eta 2019ko ekitaldietan % 8ko eta % 4ko igoerak izan dira, hurrenez hurren, eta aldi osoko bariazioa guztira % 12koa izan da. Lanbidek finantzatutako enplegu-planen bidez kontratatutako langileen kostuak bereziki eragiten du gastuaren igoeran; baita, neurri txikiagoan, aplikatutako ordainsari-igoerek ere (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** Gastu hauek 2018an % 3 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2019an % 11 jaitsi diren; honenbestez, aztertutako aldiaren % 8ko bariazio negatiboa izan dute. Hala ere, adierazi behar da jaitsiera hori gertatu dela, hein handi batean, hiri-hondakin solidoen bilketaren, tratamenduaren eta deuseztapenaren kudeaketa Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateari eskualdatu zaiolako eta gastu horiek 2019ko ekitaldiko transferentzia eta dirulaguntza arrunten kapituluaren erregistratu direlako (ikus A.3). Ondorio hori kenduta, ondasun arruntak eta zerbitzuak kontratatzeagatik gastuak % 3 igo dira aztertutako aldiaren.
- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu horrek eragindako gastua % 12 jaitsi da aztertutako aldiaren, nahiz eta Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateari egindako transferentzien ondorioz 158.518 euro igo den aldi horretan, integrazio-prozesuan zehar erakunde horri zerbitzu jakin batzuen kudeaketa eskualdatu zaiolako (ikus A.7). Gastuaren murrizketak, funtsean, León Trucios Iraskundea fundazioari emandako dirulaguntza izendunei eta enplegua sustatzeko programei eragiten die (ikus A.7).

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Saldoa positiboa izan da aztertutako aldiko hiru ekitaldietan, bi magnitudeen kasuan; izan ere, antzeko bilakaera izan dute, 2018an gora egin baitute eta 2019an behera. Bi kasuetan, aldiaren bariazio garbia negatiboa da (% 15 eta % 19), 2017ko ekitaldiko diru-sarrera arrunten % 15 izatetik 2019ko diru-sarrera arrunten % 13 izatera igaro baita, sarrera garbiaren kasuan.



Kapital-eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako aldi guztietan eta joera, gainera, areagotzekoa da. Nahiz aztertutako aldiaren sortutako aurrezki garbiak estaltzen dituen kapitalezko eragiketen aipatutako defizitak, ez da gauza bera gertatzen 2019ko ekitaldia modu isolatuan aztertzen badugu.

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Beheranzko joera erakusten du eta aztertutako azken ekitaldietan balio negatiboa izatera aldatu da.

GODG: Magnitude honen bilakaera negatiboa izan da aztertutako aldiaren eta % 28 egin du behera. Esan behar da, gainera, HKEE honek proposatutako doiketak aintzat hartuz gero, 2019ko ekitaldi itxieran GODG 933.163 eurora murriztuko litzatekeela (ikus II.2).

Zorpetzea: Ia % 53 egin du behera aztertutako aldiaren, egindako amortizazioen ondorioz.

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua du, magnitude batzuek okerrera egin badute ere. Esan beharra dago, gainera, 2020an udalerrien diru-sarrerak nabarmen egin dutela behera, bai diru-bilketak bera, bai itunpeko zergetan partaidetzak, COVID-19 pandemiaren eraginez.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2019ko ekitaldian egonkortasun printzipioa, gastuaren araua eta zor publikoa bete dela egiaztatuz; eta honako hau egiaztatu zuen Udalaren aurrekontu-likidazioari zegokionez:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2018ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGaren erreferentziako hazkuntza tasa gainditu (% 2,7).
- Zor publikoaren helburua bete da, 2019ko abenduaren 31ko zorraren kapital bizia 2018an kitatutako sarrera arrunten % 60 baino txikiagoa baita.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA.	KOBRA. GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	1.564	-	1.564	1.576	1.460	116	% 101
2. Zeharkako zergak	A.3	70	-	70	91	91	-	% 130
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	603	10	613	602	578	24	% 98
4. Transferentzia arruntak	A.4	5.397	1.054	6.451	6.528	6.254	274	% 101
5. Ondare-sarrerak	A.8	239	-	239	291	290	1	% 122
6. Inbertsio errealeen besterentzea	A.13	30	-	30	35	35	-	% 117
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	-	76	76	76	60	16	% 100
8. Aktibo finantzarioak	A.8	-	2.526	2.526	12	12	-	(*) E/E
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		7.903	3.666	11.569	9.211	8.780	431	(*)102

(*) Exekuzioaren % kalkulazterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileen gastuak	A.5	2.728	602	3.330	3.060	3.059	1	% 92
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak .	A.6	3.189	457	3.646	3.327	3.002	325	% 91
3. Gastu finantzarioak		11	1	12	8	8	-	% 67
4. Transferentzia arruntak	A.7	1.213	132	1.345	1.228	1.124	104	% 91
6. Inbertsio errealak	A.8	443	2.463	2.906	1.656	1.587	69	% 57
8. Aktibo finantzarioak	A.8	-	11	11	11	11	-	% 100
9. Pasibo finantzarioak	A.9	319	-	319	319	319	-	% 100
GASTUAK, GUZTIRA		7.903	3.666	11.569	9.609	9.110	499	% 83

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER. ZORRA	KOBRA./ BALIOG.	AZKEN ORDAIN. ZORRA	
					Kobratzeko dauden saldoak
Ordaintzeko dauden saldoak		709	-	670	39
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(185)		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide aitortu garbiak.....	9.211
Obligazio aitortu garbiak.....	(9.609)
EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA	(398)
EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA	(185)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak.....	(41)
GODG bidez finantzatutako gastuak.....	1.061
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	437

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
FUNTS LIKIDOAK (A)	1.436
KOBRATZEKO DAUDEN SALDOAK (ikus A.10) (B)	3.498
Aurrekontu arruntetik.....	431
Aurrekontu itxietatik	3.053
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetatik	14
ORDAINZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK (ikus A.11) (C)	933
Aurrekontu arruntetik.....	499
Aurrekontu itxietatik	39
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetatik	395
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)	459
Behin betiko aplikatzeko dauden kobrantzak (ikus A.11).....	(40)
Behin betiko aplikatzeko dauden ordainketak (ikus A.10).....	499
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	4.460
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10)	(2.371)
Atxikitako finantzaketa-soberakina	(634)
GODG	1.455
Gauzatu gabeko sarreren itzulketagatiko obligazioen saldoa (ikus A.11).....	7
GODG DOITUA	1.448
ZORPETZEA 19.12.31N (ikus A.9)	576



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018KO abenduaren 31n				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2019	2018		ERANSKINA	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		29.977	28.360	ONDARE GARBIA		31.662	30.667
IBILGETU UKIEZINA.....	A.8	220	220	Ekarrirako ondarea.....	A.8	39.933	39.898
IBILGETU MATERIALA.....	A.8	28.988	27.829	Sortutako ondarea.....		(8.313)	(9.273)
LOP.....	A.8	759	300	Dirulag. emaitzetara egozteke....		42	42
Epe luzeko inbertsio finantz.	A.8	10	11				
				PASIBO EZ-ARRUNTA	A.9	576	895
				Epe luzeko zorrak.....		576	895
AKTIBO ARRUNTA		3.225	4.421				
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.10	645	1.534	PASIBO ARRUNTA	A.11	964	1.219
Epe motzeko inbertsio finantz.	A.10	1.144	1.143	Epe motzeko zorrak.....		253	419
Eskud. eta best. akt. baliok.	(*)	1.436	1.744	Hartzed. eta ordain. bst knt b.		711	800
AKTIBOA, GUZTIRA		33.202	32.781	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		33.202	32.781

(*) 2019ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 202 euro izan ezik.

2019KO ETA 2018KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....		2.113	2.663
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....		6.604	6.855
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....		8	16
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....		408	396
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		9.133	9.930
Langileen gastuak.....		(3.134)	(3.018)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(1.228)	(1.132)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....		(3.461)	(3.730)
Ibilgetua amortizatzea.....		-	(728)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(7.823)	(8.608)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		1.310	1.322
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....		-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		1.310	1.322
Sarrera finantzarioak.....		25	20
Gastu finantzarioak.....		(8)	(11)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(367)	(399)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		(350)	(399)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		960	932



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Balmasedako Udala toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Udalek zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2019ko ekitaldirako aurrekontua 2018ko abenduaren 21eko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hil bereko 31n eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2019ko urtarrilaren 25ean eman zen argitara berriz BAOn.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Miles de euros				
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU TRANSF.	KREDITU GAIKUNTZA	KREDITU GEHIGARRIA	GUZTIRA
1. Langileen gastuak.....	315	(13)	300	-	602
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak	55	105	198	99	457
3. Gastu finantzarioak	-	1	-	-	1
4. Transferentzia arruntak.....	17	(122)	205	32	132
6. Inbertsio errealak.....	1.584	29	93	757	2.463
8. Aktibo finantzarioak	-	-	-	11	11
GASTUAK, GUZTIRA	1.971	-	796	899	3.666

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak finantzatu ziren Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2018ko ekitaldi itxieran, 2,5 milioi euroren zenbatekoan, eta transferentzia arrunten eta kapitalezkoen bidez, 1,1 milioi euroan.

Ekitaldian aurrekontua aldatzeko 14 espediente izapidetu ziren eta horietako 11 Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; gainerako 3ak, berriz, Udalbatzara eraman ziren onartzeko. 7,9 milioi euroren hasierako aurrekontua % 46 gehitu zen eta behin betiko aurrekontua 11,6 milioi eurora iritsi zen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:



	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Horkasitas jauregia behin-behinean egokitzea (*).....	436
Bide publikoak zolatzea.....	371
“Good Local Adapt” proiektua, EBren LIFE programaren bidez finantzatua	318
Inbertsioa bide, pista eta baso-berritzeetan	139
Beste txiki batzuk.....	707
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	1.971
Lanbide: enplegu-programak.....	216
Beste txiki batzuk.....	580
KREDITU GAIKUNTZAK GUZTIRA	796
“Good Local Adapt” proiektua, EBren LIFE programaren bidez finantzatua	350
Beste txiki batzuk.....	549
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	899

(*) Ikus obra nagusiari dagokion espedientearen analisisa A.13. atalean.

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko martxoaren 30eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra urte bereko irailaren 3ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	951
TMIZ.....	417
HILBIZ.....	80
JEZ.....	128
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	1.576
EIOZ	91
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	91
Kirol instalazioetan eta igerilekuetan zerbitzuak ematearen tasa.....	254
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde	77
Isunak (*)	62
Beste txiki batzuk	209
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	602
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	2.269

(*) Horkasitas jauregia behin-behinean egokitzeko obraren esleipendunari ezarritako berandutze-zigorrak barne hartzen ditu, 23.662 eurorenak (ikus 1. espedientea A.13an).

BFAk Balmasedako Udalari honako zerbitzuok ematen dizkio: OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta bildu -bai borondatezko aldiari, bai premiamendukoan-, lankidetzahitzarmenen indarrez. Zerga horietako lehenengoari dagokionez, kontabilizazio-akatsen

ondorioz, 2019ko ekitaldiari dagokion likidazioan jasotako kobratzeke dagoen kopurua 74.035 eurotan gainbaloratua dago. Zenbateko hori baliogabetzeak eta, ondorioz, kobrantza zalantzarriko saldoen kalkulua zuzentzeak 44.905 euroren eragin garbi negatiboa dute GODGaren gainean (ikus II.2).

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak eta Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateak Balmasedako udalerrian ematen dituzte, hurrenez hurren, ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak eta HHSen kudeaketa eta tratamenduko zerbitzuak, eta horiei lotutako gastuak eta diru-sarrerak beren gain hartzen dituzte.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldiari eta 2016ko urriaz geroztik lankidetzaz hitzarmen bat du BFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko. Udalak, gainera, zerga-kudeaketan laguntzeko kontratuak ditu kanpoko enpresa batekin, eta horien artean daude eskualdaketa horren aurretik sortutako premiamendu-bideko zorrak biltzeko lankidetzaz lanak (ikus A.6).

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2019ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arruntengatik eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	CAPITAL
Estatuarenak	14	-
EAErenak	623	-
AO: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	153	-
AO: Gertuko merkataritza eta merkataritzako bulego teknikoa	110	-
Lanbide: enplegu-programak	306	-
Beste txiki batzuk	54	-
BLHrenak	5.881	76
BFA: Itunpeko zergetan partaidetza (Udalkutxa).....	5.518	-
BFA: SAAD eta Gizartekutxa	280	-
BFA: Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa.....	34	-
BFA: Hobekuntzen funtsa	-	54
BLHren askotariko beste dirulaguntza batzuk	49	22
Irabazi asmorik gabeko entitateenak	10	-
GUZTIRA	6.528	76

A.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioan, LZn jasotako lanpostu kopurua eta 2019ko abenduaren 31ko plantilla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ. AITORT. 2019	OBLIGAZ. AITORT. 2018	LANPOSTU KOP.	
			LZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak.....	53	61	E/E	1
Funtzionarioen ordainsariak	1.312	1.379	41	(1) 33
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	754	(2) 824	10	20
Enplegu planetako lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	173	-	E/E	12
Gizarte Segurantza	(3) 701	608		
Beste gizarte-gastu batzuk	67	66		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	3.060	2.938	51	66

(1) Bitarteko 8 funtzionario eta karrerako praktiketako funtzionario 1 barne hartzen ditu.

(2) Lanbideko enplegu planen bitartez kontraturiko lan kontratupeko langileen gastua barne hartzen du.

(3) Ez du 2019ko abenduko kuota jasotzen, 53.365 euroren zenbatekoan (ikus II.2).

Ordainsariak

Udalbatzak, 2019ko urtarrilaren 10ean, langileen ordainsariak % 2,25 handitzea erabaki zuen, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25eko igoera gehigarria aplikatzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, Ministroen Kontseiluaren erabaki bidez finkatu beharrekoa, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege lege-dekretuan xedatutakoaren arabera. Igoera gehigarri hori % 0,25ean ezarri zen.

LZ eta plantilla

2019ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak	3	-
Bitarteko funtzionarioak.....	3	2
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	-	3
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak	25	39
GUZTIRA	31	44

Funtzionarioen altei dagokienez, horietako 2 udaltzainei dagozkie, eta gainerakoa, berriz, goi-mailako arkitektoaren plaza bat betetzeari; izan ere, aipatutako udaltzaingoan bezala, plaza hori dagokion EPEn sartuta zegoen.

Aldi baterako lan-kontratuko langileen bajei dagokienez, Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateari eskumenak eskualdatzearen ondorioz 2019ko martxoaren 31n udaleko

langile izateari utzi dioten 3 pertsonari dagozkie (ikus A.7); hirurak erakunde horretako plantillako izatera aldatu dira.

Alkatetzaren abenduaren 12ko dekretu bidez, Udalak 2019rako EPEa onartu zuen, udaltzaingo plaza batez osatua.

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	OBLIGAZ. AITORTUAK
Errentamenduak	199
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	720
Ondasun naturalena.....	312
Eraikin eta bestelako eraikuntzak (1).....	371
Beste ibilgetu bat.....	37
Bulegoko materiala	22
Hornidurak	407
Energia elektrikoa.....	209
Gasa.....	122
Ura.....	45
Bestelako hornigaiak.....	31
Komunikazioak	60
Garraioak	2
Aseguru-sariak	34
Hainbat gastu	561
Jarduera soziokulturalak.....	266
Herri-jaiak.....	214
Bestelako hainbat gastu.....	81
Kanpoko enpresek egindako lanak	1.248
Kirol instalazioen ustiapena eta mantentze-lana (2).....	379
Kale garbiketa (2).....	233
Etxerako laguntza zerbitzua (3).....	180
Gazteriarentzat jardueren programazioa eta dinamizazioa.....	110
Zerga kudeaketari laguntza zerbitzua.....	39
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	307
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	74
GUZTIRA	3.327

(1) Udal eraikinen garbiketa-gastuak barne hartzen ditu, 241.119 euroan (2).

(2) Ikus A.13an aztertutako kontratua.

(3) Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateak fakturatutako 94.294 euroren gastuak barne hartzen ditu, fiskalizatutako ekitaldian zerbitzuaren kudeaketa eskualdatu ostean (ikus A.7).

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2019ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza arruntak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBAT.
TRANSFERENTZIAK	319
Enkarterriko Udalerrien Mankomunitatea (*).....	224
